



Ainara Muntek irabazi du itzulpenen Etxepare-Laboral Kutxa saria

Joseba Sarrionandiaren 'Hilda dago poesia?'-ren katalanerako itzulpenarengatik saritu dute

Erredakzioa Bilbo

Ainara Munt Ojanguren (Zaragoza, Espainia, 1975) eskuratu du Etxepare-Laboral Kutxa Itzulpengintza saria, Joseba Sarrionandiaren *Hilda dago poesia?* poema liburua katalanerako itzulpenarengatik. *És morta la poesia?* izenburuarekin kaleratu du liburua Pol-Len argitaletxeak. Itzultzaileak eta argitaletxeak 4.000 euroko saria partekatuko dute; horrez gain, 2.000 euro arteko laguntza jasoko dute argitalpena sustatzeko.

Epaimahaiak itzulpenaren kalitatea izan du kontuan, baita argitaletxeak egin duen sustapen lana ere. Itzultzailearen ibilbidea bera eta itzulitako generoaren balioa ere (poesia) aintzat hartu ditu lana baloratzeko orduan. «Itzulpen zaindua eta zehatza izatea,



Ainara Munt —erdian—, atzo, Bilbon eginiko ekitaldian. MARISOL RAMIREZ / FOKU

idazleak jatorrizko hizkuntzan bilatutako esanahia katalanez islatzeko jarritako arreta eta jatorrizkoaren musikaltasunari eta efektu adierazkorrari eusteko ahalegina» nabarmendu du. Era berean, argitaletxearen lanari da-

gokionez, zera azpimarratu du: «Nabarmentzekoak izan dira euskal literatura eta, bereziki, Sarrionandiaren lana kataluniarrei helarazteko urteetan egindako ahalegina».

Ainara Munt Ojanguren aita

katalana eta ama euskalduna ditu, eta Bartzelonan egin ditu bere bizitzako urte gehienak. Kataluniar Itzultzaile eta Interpretuen Erakunde Profesionaleko kide da. Literatura, saiakerak, ikerketak eta erakusketetako eskuorriak itzuli ditu batik bat Muntek, eta itzulpengintza zientifiko-teknikoan eta ikus-entzunezkoan ere badu eskarmentua. Aurretik ere, Joseba Sarrionandiaren lan gehiago itzuli ditu katalanera; hain zuzen ere, *Ni ez naiz hemengoa* (*Jo no soc d'aquí*) eta *Moroak gara behelaino artean?* (*Som com moros dins la boira?*). *Hilda dago poesia?* izan da Sarrionandiari egin dion azken itzulpena, eta lan horrekin, besteak beste, Mallorcako Cavall Verd literatura sarietan Rafel Jaume saria irabazi du Muntek, urteko poesia itzulpenik onenarengatik.